

A·27 Hegazkinen disenua

01

Kurtsoa/Maila

- 2. DBH
- 3. DBH
- 4. DBH
- 1. Batxilergoa
- 2. Batxilergoa

Datak

2025 Iraila - 2026 Apirila

Ikaskuntza-arloak

Fisika
Marrazketa Teknikoa
Teknologia

Jarduera formatua

Aditua ikasgelan

Hizkuntza

Gaztelania

Irismen geografikoa

Araba/Álava

Jarduera ematen duen erakundea

Aernnova

Ikasleek, AERNNOVA enpresako aditu baten hitzaldiaren/aurkezpenaren bidez, hegazkinak nola diseinatzaren diren jakin ahal izango dute. Aditu horrek konpainiaren negozioa zehaztuko du. Hainbat materialetako piezen diseinutik hasi eta egitura aeronautikoen muntaietaraino. Tailerraren arduradunak aeronautikaren sektoreko alderdi garrantzitsuenen sarrera egingo du, sektorean gehien eskatzen diren STEAM lanbideak azalduz eta genero ikuspegia txertatuz, estereotipo ezagunenekin.

STEM Deskribatzaileak

STEM 2

STEM 3

STEM 4

Baliabideak

Baliabide materialak

Erronka egiten den gelak proiektagailua eta Interneterako konexioa izan beharko ditu.

Baliabide ekonomikoak

Ez dira behar.

Informazio gehiago

aernnova.com

A·27 Hegazkinen disenua

02

GARAPENA

Prestaketa fasea

Irakasle-Profesionala: Aditua irakasleekin biltzen da, edukia ikasleen aurretiazko ezagutzara egokitzeko.

Aldez aurreko lana ikasgelan: Ikasleek adituari egin beharreko galderak eta zalantzak prestatuko dituzte, aldez aurretik ikasitakoaren arabera.

Garatze fasea

- Enpresari buruzko aurkezpen laburra: jarduera-ildoak, jarduera, kokapen geografikoa, etab.
- Adituak bere ibilbide profesionala, hainbat proiektu, bizipenak, enpresan egiten duen lana eta lana egiteko behar duen ezagutza azaltzen ditu. Lanbideak eta genero-ikuspegia.
- Adituak hegazkin baten diseinuaren prozesua, aeronautikaren sektorean erabilitako modeloak eta softwarea (CATIA, Nx, ...) azalduko dizkie ikasleei. Hegazkinen maketak eta 3D modeloak erakutsiko ditu.

- Hegazkin bat diseinatzeko prozesua ezagutu ondoren, adituak talde-lanaren, ingeniartza konkurrentearen, sail desberdinen eta abarren garrantzia azalduko du.
- Horretarako, pieza fisikoak, irudiak eta bideoak erabiltzen dira. Egitura aeronautikoetan erabiltzen diren materialen arteko desberdintasunak azalduko dira.

Ikasgelan integrazio fasea

Ikasleek jarduera baloratuko dute eta esperientziari buruzko txosten bat prestatuko dute.

A·27 Hegazkinen disenua

03

CURRICULUMAREKIN LOTURA

Jardueran lantzen diren
curriculum-ikaskuntzak:



Fisika

- Hegazkin bati hegan egiten uzten dioten printzipio fisikoak (Bernoulli-ren printzipioa, Venturi efektua eta hegazkin batean eragiten duten indarrak, hala nola sostengua, erresistentzia, grabitatea eta bultzada).



Marrazketa teknikoa

- Marrazketa teknikoak arkitekturan eta ingeniartzan duen garrantzia ezagutzea.
- Oinarri geometrikoak: definizioa, aplikazioak eta erlazioak.
- CAD sistemak: bektore-aplikazioak 2-3D. Ordenagailu bidezko diseinua, CATIA softwarearen bidez



Teknologia

- Materialak eta fabrikazioa: fabrikazio-teknikak. Benetako enpresa baten industria-prozesua ezagutzea.
- Sektoreko hainbat teknologiatako fabrikazio-prozesuak.